

IKASLEAREN GIDA:

**PSIKOLOGIAREN
HISTORIA**

**IKASTURTEA:
2014-2015**

TITULAZIOA: PSIKOLOGIAKO GRADUA

IKASTEGIA: PSIKOLOGIA FAKULTATEA

IKASTURTEA: 2014-2015

IKASLEAREN GIDA

1. IRAKASGAIAREN OINARRIZKO DATUAK

IZENA: PSIKOLOGIAREN HISTORIA

KODEA: **25100**

IKASTURTEA: **2014-2015**

Irakasgai mota= **S**

(D=adarreko oinarrizkoa; S=beste adar batzuetako oinarrizkoa; Y=gradu amaierako proiektua; O=nahitaezkoa edo P=hautazkoa)

ECTS kredituak: **6**

MAILA: **1**

LAUHILEKOA: **1**

Aurretiko baldintzak:

Aholkuak:

2. IRAKASLEEN OINARRIZKO DATUAK

IZEN ABIZENAK: ANGEL GONZALEZ ALONSO (Gaztelaniaz)

IKASTEGIA/SAILA: OINARRIZKO PSIKOLOGIA PROZESUAK ETA HAIEN GARAPENA

ARLOA: OINARRIZKO PSIKOLOGIA PROZESUAK

BULEGO ZK.: P3D4

POSTA.:

angel.gonzalez@ehu.es

TEL.:

943 01 5696

WEB HELBIDEA:

IZEN ABIZENAK: LUIS MARIA ITURBIDE LUQUIN (Gaztelaniaz)

IKASTEGIA/SAILA: OINARRIZKO PSIKOLOGIA PROZESUAK ETA HAIEN GARAPENA

ARLOA: OINARRIZKO PSIKOLOGIA PROZESUAK

BULEGO ZK.: P3D75

POSTA.:

luismaria.iturbide@ehu.es

TEL.

943 01 5743

WEB HELBIDEA:

IZEN ABIZENAK: MANUEL SANCHEZ DE MIGUEL (Euskaraz)

IKASTEGIA/SAILA: OINARRIZKO PSIKOLOGIA PROZESUAK ETA HAIEN GARAPENA

ARLOA: OINARRIZKO PSIKOLOGIA PROZESUAK

BULEGO ZK.: P3D84

POSTA.:

manu.sanchez@ehu.es

TEL.

943 01 5699

WEB HELBIDEA:

3. IRAKASGAIAREN GAITASUN ZEHATZAK ETA ZEHARKAKOAK

Gaitasunaren zk.:	Gaitasunak
C1	Psikologiaren sistemak, teoria eta eskola nagusien ezaugarriei heltzea, praktika psikologikoan eta ezagutzan izandako ekarpena ulertzeko asmoz.
C2	Psikologiaren eredu azaltzaileak eta euren testuinguru historikoa kritikoki astertzea.
C3	Testuen analisiaren bitartez, Psikologiaren Historiaren funtsezko informazio iturburuak ezagutzea.
C4	Psikologiaren terminologia zientifikoa ezagutzea.

4. PROGRAMA

4.1. TEORIAKO PROGRAMA GARATUA

01. PSIKOLOGIAREN HISTORIA: HELBURUA, METODOAK ETA TEORIAK

Definizio bat baino, psikologiaren historiaren inguruan era askotako proposamen badaude, bertzeak bertze, historiaren estrukturari buruzkoak, historialariaren ikuspegiarenak, eredu historiografikoak, etab., horren ondorioz, erran dezakegu definizio ugari sortarazten direla.

GARATU BEHARREKO GAITASUNAK: (C3) eta (C4)

02. AURREKARI FILOSOFIKO ETA ZIENTIFIKOAK

Galileok, Newtonek eta Harveyk metodo zientifikoaren eta XVIII. mendeko iraultza zientifikoaren oinarriak sendotu zituzten. Bere aldetik, Deskartesek "kontzientziaren pasabidea" ireki zuen. Bakonek eta induktibismoaren aldekoek, aldiz, errealitatearen eta izadiaren ezagutzaren hurbiltasun inpartzialaren alde apustu bat egin zuten. Induktibismoaren ondoren, Hume eta asoziazionistak -Aristotelesen lege asoziazionistetan oinarrituta- gizakiaren funtzionamendu mentalera hurbildu ziren. Gerora, mundu fisikoaren eta esperientzia psikologikoaren artean parekotasunik ez zegoenaren ideiak burmuinaren ikerketa anitza abian jarri zuen XIX. mendean, batik-bat, ikerketa fisiologikoa bultzatuz. Azkenik, psikofisika alemaniarra estimuluko fisikoen manipulazio esperimetalaren bitartez saiaturiko da sentazioak eta kontzientzia bat egiten, W. Wundtek sortutako psikologia esperimetalaren aurrekaria delarik.

FILOSOFIA ARRAZIONALISTA: Deskartes, Leibniz, Kant eta Herbart (XVII. eta XVIII. mende)

ENPIRISMO: Bacon, Hobbes, Locke, Berkeley

ASOZAZIONISMO BRITAINIARRA: Hume, Hartley, Mill, Stuart Mill eta Alexander Bain (XVII. eta XIX. mende)

FISIOLOGIA: Müller, Helmholtz, Gall, Flourens, Broca,

PSIKOFISIKA ALEMANIAN: Weber eta Fechner (XIX. eta XX. mende)

GARATU BEHARREKO GAITASUNAK: (C1) (C2) eta (C4)

03. PSIKOLOGIA ESPERIMENTALAREN SORKUNTZA: WILHEM WUNDT

1879an Wundtek sortuko du Leipzigen (Alemania) psikologia esperimentalaren lehenengo laborategia. Bere proposamenaren arabera, gizakiaren sorkuntza sortzailetik eratortzen ziren formazio psikiko konplexuenak (gizakiaren borondatearen eraginez), bere erranetan, zientzia honen burujabetasuna eta independentzia islatzen dutenak.

GARATU BEHARREKO GAITASUNAK: (C1) (C2) eta (C4)

04. PSIKOLOGIA EUROPARREAN IZANDAKO BERTZE TRADIZIO BATZUK

Wundtek sorturiko sistema psikologikoaren alternatiba gisara, hainbat psikologo alemaniarrek "fenomenologia" (esperientzia mentalaren deskribapena) jorratuko dute euren lanetan. Azpimarratzekoak dira, bertzeak bertze, Brentano (introspektio fenomenologikoa) eta Ebbinghaus (ikaskuntza eta oroimenei buruzko ikerketan aitzindaria). Bi egile hauetaz gain, Külpek irudi gabeko pentsamenduaren analisiari heldu zion.

Psikologia frantziarri dagokionez eta ilustrazio frantsesaren garaian, magnetismo animalari buruzko ikerketen sustraiak oso nabarmenak dira. Ildo horretatik, Mesmerrek eta Puysegurrek hipnotismoaren oinarriak sendotu zituzten zeinek eragina zuzena izanen duten J.M. Charcotek jorratutako neurosiari buruzko teorian, hain zuzen ere, Pariseko Salpetrierek Ospitalean arlo praktikora eramango zuena. Horren segidan, J.M Charcot polemika bizian egonen da Nancyko Ospitaleko ordezkariekin, hain justu Liebault eta Bernheimekin, alegia, Charcoten teknikaren arrakasta kolokan jarri izan zuten egileak.

Bertzalde, Ingalaterrako laborategietatik at hainbat zientzialariek eragin zuten psikologia britainiarrean, adibidez, biologia arloan Charles Darwin eta bere teoria eboluzionista, edota Francis Galton eta bere teknika estatistika aitzindariak.

Azkenik, psikologia sobietarra hartuko dugu hizpidea. Horretan giza nahiz animalien portaeraren eta testuinguruaren arteko harremanei buruzko ikerketak ezagutzera emanen dira, baita elkarreragin kulturalak sorturiko goiko prozesu psikologikoen inguruan zenbait alderdi ere.

PSIKOLOGIA ALEMANIARREN LEHENENGO URRATSAK: Ebbinghaus, Brentano, Stumpf, Husserl eta Külpe (XIX. eta XX. mende)

PSIKOLOGIA FRANTZIARRA: Mesmer, Puysegurreko markes, Charcto, Liébault, Berhnheim, Ribot eta Janet (XIX eta XX. mende)

PSIKOLOGIA BRITAINIARRA (Darwin eta Galton)

PSIKOLOGIA SOBIETARRA (Sechenov, Paulov, Bechtereov, eta Vigotsky)

GARATU BEHARREKO GAITASUNAK: (C1) (C2) eta (C4)

05. WILLIAM JAMES ETA PSIKOLOGIA AMERIKARRA.

William Jamesek pragmatismo psikologikoa gauzatu zuen kontzientziari buruzko ikuspegi berri bat eskainiz. Azken honek zeukan testuinguruarekiko harremanaren garrantzia azpimarratu zuen. Honetaz aparte, Jamesek instintuen inguruan ikuspegi malgua erabili zuen, bere erranetan, ikasitako portaeraren oinarria izanzen zela.

GARATU BEHARREKO GAITASUNAK: (C1) (C2) eta (C4)

06. ESKOLAK, TEORIAK ETA SISTEMAK.

Titchenerren estrukturalismoak zekarren gogamenaren egiturak aztertzea introspekzio kontrolatu baten bitartez, Wundtek Leipzigecko laborategian erabilitako introspekzioa baino zorrotzagoa zena. Berez, eskola estrukturalistak jaso zuen bi eskola funtzionalisten (Chicago eta Columbiako unibertsitatea) oposizio irmoa. Horrela, funtzionalismo amerikarra eraldatu zen ikerketa aplikatuen korrante berritzaile batean. Egile batzuk giza portaeraren introspekzio gabeko ikerketara dedikatu ziren, bertze batzuk, ordea, animalien psikologiara. Momentu historiko horretan Watsonek sortu zuen psikologia iraultzaile bat, hots, behaviorismoa.

Bere aldetik, European interesa franko zeukaten gaixotasun eta nahasketa psikologikoetan. Horrela agertu zen Freuden psikoanalisi, gerora kultura eta izadira zabaldu zena. European bertan ere, psikologo alemaniar ugari pertzepzioa -fenomeno psikologiko bezala- landu zuten, esperientziak ematen dizkigun osotasunak (gestalt) aztertuz.

Bertzalde, 50eko hamarkadan hainbat psikologok Watsonen behaviorismoa erreperatu zuten AEBetan, era honetara eskola psikologiko berri bat sortuz, alegia, behaviorismo berria. Portaera auresan eta kontrolatzea zeukaten helburua, baina Watsonen ez bezala, psikologo hauek zenbait aldagai kognitibo aintzat hartu zituzten, psikologia berritzaile hau norabide metodologiko batera bideratu zutenak.

Ikuspegi berri honen aurrean, bi eredu alternatibo agertu ziren: batetik, psikologia humanista, batik-bat, giza ezaugarri batzuk garatzeko izangaitasunean oinarrituta, eta, bertzetik, psikologia kognitiboa, informazio-prozesuari buruzko teoria berrietan inspiratua. Honek gogamenaren garrantzia erreperatu nahi izan zuen, nahiz eta hasieran ez eduki metodorik adostuta.

ESTRUKTURALISMO ETA FUNTZIONALISMOA: Titchener. Chicagoko eta Columbiako Eskola funtzionalistak

BEHAVIORISMO KLASIKOA: Watson

PSIKOANALISIA: S. Freud, C.G. Jung eta A.Adler

GESTALT PSIKOLOGIA: Wertheimer, Koffka, Köhler eta Lewin

BEHAVIORISMO BERRIA: Tolman, Hull eta Skinner

PSIKOLOGIA HUMANISTA: Allport. Rogers eta Maslow

PSIKOLOGIA KOGNITIBOA: Millar, Bruner, Neisser eta Chomsky

GARATU BEHARREKO GAITASUNAK: (C1) (C2) eta (C4)

4.2. PRAKTIKETAKO PROGRAMA

GAITASUNEI HELTZeko ZENBAIT EGINKIZUN

Praktikei buruzko txostenak
Informazioa aurkitzea
Eztabaida
Bideopraktiken txostenak
Artikuluen eskemak eta laburpenak
Gainontzeko lanak

GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

C1	C2	C3	C4
		C3	C4
	C2		C4
C1	C2	C3	C4
C1	C2		C4
C1	C2		C4

5.- IRAKASGAIKO PLANGINTZAREN KRONOGRAMA

(*) aurkezpen biografikoak taldeka eta txandaka egingen dira finkatu beharreko ekimen praktikoaren egutegiaren arabera.

(**) bideo praktiken egutegia zein entregatzeko epeak moodle plataforman azalduko dira.

6. EBALUAZIO SISTEMA (TEORIRAKO ETA PRAKTIKETARAKO)

Banakako eta taldeko lanen ebaluazioaren bidez, baita eduki teoriko-praktikoetan oinarrituriko azken proba baten bidez ere.

(C1) (C2) eta (C3) gaitasunen arabera:

Ebaluazio teorikoa: % 70

(C1) (C2) (C3) eta (C4) gaitasunen arabera:

Ebaluazio praktikoa: % 30 Lan biografikoa eta/edo bideopraktiken txostenak eta/edo testu iruzkinak.

Ikasgaia gainditzeko ezinbertzekoa da atal praktikoa (1,5 puntu 3tik) zein teorikoa (3,75 puntu 7tik) aprobatzea:

1. Ebaluazio teorikoa egitea finkatuko diren egunetan.
2. Taldeko lanak aurkeztea ebaluazio praktikoan.
3. Lan biografikoa aurkeztea (ikus aurkezpenen arautegia eta argibideak e-gela plataforman) .

Atal praktikoari dagokionez, gehienez 3 puntu atera daiteke: batetik, praktiken txostenak egitearen truke puntu eta erdi (1,5), bertetik, egile bati buruz lan biografikoa aurkezteagatik puntu eta erdi (1,5).

* Deialdi ofizialari uko egiteko nahikoa da ikasgai honen azterketara ikaslea ez aurkeztea

7. DOKUMENTAZIOA/BIBLIOGRAFIA

OINARRIZKOA:

- Gondra, J.M.** (1990). *La Psicología Moderna*. Bilbao: Desclée de Brouwer.
- Gondra, J.M.** (1997). *Historia de la Psicología. Vol. 2. : Escuelas, Teorías y Sistemas contemporáneos*. Madrid: Síntesis.
- Greenwood, J. D.** (2011). *Historia de la Psicología. Un enfoque conceptual*. McGrawHill.
- Hergenhahn, B.R.** (2001). *Introducción a la Historia de la Psicología*. Madrid: Paraninfo.
- Saiz, M.** (2009). *Historia de la Psicología*. Barcelona. Editorial UOC.

OSAGARRIA:

- Brennan, J.F.** (1999). *Historias y Sistemas. Lecturas*. Mexico: Prentice Hall.
- Caparros, A.** (1979). *Introducción histórica a la Psicología*. Barcelona: Rol.
- García-Vega, L.** (2003). *Breve historia de la Psicología*
- Kantor, J.R.** (1990). *La evolución científica de la Psicología*. Mexico. Trillas.
- Klein, D.B.** (1970). *History of scientific psychology*. Londres: Routledge.
- Mueller, F.L.** (1965). *Historia de la Psicología. De la Antigüedad hasta nuestros días*. Buenos Aires: Paidós.
- O'neil, W.M.** (1975). *Los orígenes de la Psicología Moderna*. Caracas: Monte Avila.
- Reuchlin, M.** (1959). *Historia de la Psicología*. Buenos Aires: Paidós.
- Richardson, K.** (1991). *Para comprender la Psicología*. Madrid: Alianza.
- Robinson, D.N.** (1982). *Historia crítica de la Psicología*. Barcelona: Salvat.
- Rosa, A., Huertas, J.A. eta Blanco, F.** (1996). *Metodología para la Historia de la Psicología*. Madrid: Alianza.
- Santamaria, C.** (2001). *Historia de la Psicología: el nacimiento de una ciencia*. Barcelona: Ariel.

INTERNETeko BALIABIDEAK:

BILATZAILEAK:

<http://www.psiconet.com/>

http://library.uml.edu/reference/virtual_library/psychology.htm

BIOGRAFIK:

http://www.psychology.org/links/People_and_History/

<http://faculty.frostburg.edu/mbradley/psyography.html>

http://www.psychnet-uk.com/training_ethics/psychologists.htm

8. TUTORETZEN ORDUTEGIA:

Tutoretza ordutegia honako baliabide edo plataformetan aurki daiteke:

- "Gaur" eta "eGela" plataforma digitaletan